

MUGIKORZALEEGIAK?

Mugikorren abantailak errealak dira, nahiz eta hauen kontrako iritzia geroz eta ugariagoak izan. Gaur egun, mugikorra gurekin eramaten dugu leku guztietara, hau da, mugikorrak gure egunerokotasunean tresna erabilgarriak dira. Zer dela eta hori?

Egunerokotasunean, beti behar dugu mugikorra eguraldia begiratzeko, gure ingurukoak berri izateko, albisteak irakurtzeko, etab. Hain zuzen, gure egunerokoa errazten duten tresna ugari eskaintzen dizkigu mugikorrak, eta hori areagotuz joango da, egunetik egunera teknologiaren garapena handitzen ari delako da.

Gure arteko komunikazioari dagokionez, mugikorrak gertu zein urruti daude pertsonekin komunikatzeko eta azkar komunikatzeko aukera ematen digu. Esate baterako, ziur nago, guztiok dugula gure herritik kanpo asko maite dugun norbait, eta berarekin harremanten jartzeko beharrezkoa dugu mugikorra. Bestalde, zuzeneko komunikazioa denez, mugikorraren bitartez une oro egon gaitezke pertsona horiekin hitz egiten.

Horrez gain, badirudi erosketak egiterako garaian pertsona askok internetez egiteko nahia edo beharra dutela, botoi bati *klik* egin eta pakete bat iristen baitzaizu zuk nahi duzun lekura. Gure etxeetatik atera ere egin gabe erosketa guztiak egin ditzakegu: arropa, janaria, medikamentuak... Gure bizitza asko errazten du honek.

Beraz, gaur egunean mundua dagoen bezala egonda, mugikorra funtsezkoa da gure bizimodua aurrera eramateko eta guztiok ditugun beharrak eskuratzeko. Horrez gain, urteak aurrera doaz, eta teknologiaren garapenak jarraitu egiten du. Posible al litzateke teknologiaren garapenik gabeko etorkizuna?

Aiara Carrera Aldalur
Azpeitiko Urola Ikastola BHI 4F